

*“Altsasuko Dantzalekuko hariztiari balioa ematea, interpretazio-ibilbide baten bidez”*

*“Dantzalekuko hariztiaren balioa nabarmentzea interpretazio-ibilbide baten bidez (Altsasu)”* proiektua Plazaola-Sakana-Ultzamaldea Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planean sartuta dago, eta, aldi berean, *Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean – Europar Batasunak – NextGenerationEUK % 100ean finantzatuta.*

87.021,97 €-ko aurrekontua duen proiektu honek Altsasuko Galeonaren ibilbidea eta interpretazio-panelak birdiseinatu eta eguneratzeaz gain, interpretazio-elementu berri batekin osatu du, tematizatutako jolas-gune bihurtzeko. Horrela, interpretazio-elementu bakar batetik abiatuta, interpretazio-eremu bat eraiki da XVI. mendeko Galeoiaren inguruan, dagoen engurrume naturala errespetatuz.

Proiektu honen bidez, ontzigintzarako hariztien kudeaketa eta haien esanahi historiko-kulturala balioesten dira, eta turismo ekologikoago baterako garapenean eta sustapenean laguntzen da. XVI. mendean Sakanako herriek itsasontziak egiten zituzten euskal kostaldeko herriekin izan zuten harreman komertziala erakusten digu bere interpretazio-panelen bidez egindako ibilbideak. Hariztien, dituzten ezaugarriengatik, eta Sakanak, euskal kostaldetik gertu egoteagatik, Sakanako haritza erabili ahal izan zuten ontzigintzan. Izan ere, 1563ko ordenantzak, Sakanako basoen kudeaketa arautzen zutenek, haritz bakoitzetik aterako zen ontzi-pieza kontuan hartuta inausketa edo "motxak" nola egiten ziren islatzen dute. Gaur egun oraindik igar daiteke haritzetan "lepatuak" izan ziren ontzigintzako piezen profila. Interpretazio-panelek haritz bakoitzak ezkututzen dituen itsasontziko piezen profila erakutsiko digute.

Galeoiaren ibilbideak balio kultural handia du eta oso berezia edo berritzailea da bere gaiagatik. Ez dago jasota horrelako interpretazio-ibilbiderik dagoenik ez Nafarroako beste eremu batzuetan, ez Kantauri isurialdean.